



## USURBIL – ELKARGUNEA

### 2. SAIO IREKIA

**Eguna:** 2024/03/16

**Ordua:** 10:00-13:30

**Tokia:** Udarregi Ikastolako jangela

#### Bildutakoak:

- Guztira, 21 lagun; % 48 emakumeak eta gainerako % 52 gizonak
- Usurbilgo Udaleko 3 arduradun politiko
- Behark arkitektura-taldeko 2 arkitekto
- Elhuyarreko partaidetza eta eraldaketa soziala arloko 2 aholkulari

#### Landutakoak:

##### 1. Sarrera eta kokapena

Hasteko, Usurbilgo Udaleko kultura arloko zinegotziak, Jon Mikel Azpiazu Zubeldiak, partaideei harrera egin eta bilerari hasiera eman dio, gaurko saioaren helburuak gogoraraztearekin batera: helburuak eta balioak lantzea.

Jarraian, Maialen Iñarra Arregi zinegotziak, arkiektura-proiektua landuko duten *Behark* arkitektura-taldeko Beñat eta Gentzane aurkeztu ditu, adieraziz gaurko saioan berariaz espazioaz hitz egingo ez bada ere, lehendabiziko pertsonan, aurrez aurre, saioan lantzen denaren, hausnartzen denaren... berri izatera etorri direla.

Segidan, Beñat eta Gentzane hartu dute hitza eta euren proiektu eta lan egiteko moduei buruzko xehetasunak partekatu dituzte; hala nola baliabide gutxirekin ahalik eta helburu gehienak lortzera bideratuta, prozesu parte-hartzaileen bidez, parte-hartzaileen ahotsak entzunez... egiten dutela lan. Bestek beste, Aiaraldeko Ekintzen Faktorian egindako lana partekatu dute, beharbada antzekotasunak izan ditzakeelako hein batean, nahiz eta azpimarratu duten proiektu bakoitza oso desberdina dela. Eta aurrera begira aintzat hartzeko hainbat gako eta bide posible ere aipatu dituzte, auzolanean jardutea, esaterako.




Azkenik, Elhuyarreko aholkulariek *Elkargunea* proiektuaren definizio partekatua osatzeko partaidetza-prozesuko 2. saioko planteamendua konpartitu dute:

- Sarrera eta girotzea
- Elkargunea proiektuaren helburuak definitzea
- Elkargunea proiektuaren balioak adostu eta ezaugarritzea
- Elkargunea proiektuaren balioen baitan, helburuak osatzea
- Balorazioa egitea

## 2. Girotzea

Partaideei zutitu eta borobilean jartzeko eskatu diegu. Ondoren, lehen saiotik eta Oñatira egindako bisitatik dakarten ideia bat edo beste konpartitzeko eskatu diegu. Hau, baina, hari-mataza baten bitartez egin dugu, banan-banan hitz hartuz eta segidan haria beste bati pasaz.



Honela laburbildu ditzakegu jasotako ideia nagusiak:

- Oñatira egindako bisita positiboki baloratu da. Nolabait, bakoitzak bere buruan irudikatzen zuena, bertatik bertara ikustea aberatsa izan dela nabarmendu da.
- Oso positibotzat jo da prozesuan parte hartzen ari diren eragile eta norbanakoen aniztasuna; elkarrekin herrigintza egitea.
- Prozesuaren aurrean, ilusioa, gogoia eta motibazioa nabarmendu dira.

### 3. Helburuak definitzea

Jarraian, Elkargunearen helburuak definitzera pasa gara; proiektuaren ipar izango diren barrura zein kanpora begirako helburuak, hain zuzen.

Helburuen definiziorako lagungarri, ekipamendu batek ikuspegi komunitarioa izateko bete behar dituen oinarriak konpartitu ditugu.

- Ekipamendu **PUBLIKOA** izan behar du; edonorentzat, eta ez du inolako salbuespenik ezarri behar.
- Batez ere, **HARREMANETARAKO** gunea izan behar du. Jendea egoteko eta harremanak izateko lekua.
- Eremu honetan, pertsonak **EMATEA** bilatu behar da, pertsonak protagonista izan behar dira.
- Hori posible izan dadin, ekipamendu **IREKIA** izan behar du, sarrera eta irteera errazekoa.
- Era berean, **BILATZERA JOATEAREN** ideiak presente egon behar du: falta den jendarengana, etortzen ez denarengana, inguruko zerbitzu eta ekipamenduetara... hurbildu behar da.
- Ondorioz, **ELKARRIZKETA** izan behar da bestea entzun eta ezagutzeko harreman-estrategia.
- Noski, ekipamendua zerbitzu gisa baino gehiago **PROIEKTU** gisa pentsatu behar da.
- Eta bide batez, **PARTE-HARTZE KOMUNITARIOA** erraztu eta sustatu behar du.

Ondoren, talde txikitik egin beharrekoa zer den azaldu diegu. Hain zuzen, Elkargunean helburuak definitzea, mailaka bereizita. Nahiz eta helburuen bereizketa kasu batzuetan lausoa izan eta helburu batek bestearengan inpaktua eduki, honako irizpideen arabera bereizketa egiteko eskatu diegu: lehenik, Elkarguneko talde sustatzaileari (edo Koordinazio-guneari, Talde Eragileari.. dena delakoa) dagozkion helburuak; bigarrenik, Elkargunea proiektuari lotutakoak; eta, hirugarrenik, Usurbilgo herriari, zein gizarteari, oro har, begirakoak.



Talde txikitan aritu ostean, talde handian partekatu ditugu adostutako helburuak, eta papelografo batean jaso.

1. TALDEA		
Talde sustatzaileari dagozkionak	Elkargunea proiektuari lotutakoak	Usurbilgo herriari, zein gizarteari, oro har, begirakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatzea/bultzatzea/bermatzea.</li> <li>- Eragile berriak gerturaraztea.</li> <li>- Funtzionamenduaren dinamizatzaileria izatea.</li> <li>- Taldearen transmisioa bermatzea.</li> <li>- Eraikinaren kudeaketa bideratzea (ekonomikoa, garbiketa, jarduerak...).</li> <li>- Balioak orekatuta mantentzea (balio batzuk ez hartzea besteek baino pisu gehiago) .</li> <li>- Elkargunearen helburuak presente daudela ziurtatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektu bizi bat izatea.</li> <li>- Jardunean helburuak betetzea.</li> <li>- Eragileen arteko elkarlana bermatzea.</li> <li>- Harremanak osasuntsuak izatea.</li> <li>- Espazio seguru bat izatea.</li> <li>- Eskaintza ezberdinak eskaintzea. Aniztasuna bai jende aldetik, baita jarduera aldetik ere.</li> <li>- Herritarren aktibazioa bermatzea.</li> <li>- Eragileen jarduna partekatzeko eta ezagutzeko eremua izatea.</li> <li>- Hausnarketarako, aisialdirako eremu "itxi" eta goxoa izatea.</li> <li>- Kultur eskaintza ezberdinak herrira ekartzea.</li> <li>- Elkarrengandik ikasi eta laguntzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erreferentziako gunea izatea.</li> <li>- Usurbilek beharrezkotzat izendatzea.</li> <li>- Herritarrentzat harremantzeko gunea izatea.</li> <li>- Herritarrek beraien ideiak plasmatzeko espaziotzat ikustea.</li> <li>- Elkargunean jarduna ezagutzea.</li> <li>- Herrigintza bultzatzea.</li> <li>- Herriko jardurekin bat egitea (ez kontraprogramatzea).</li> </ul>

2. TALDEA		
Talde sustatzaileari dagozkionak	Elkargunea proiektuari lotutakoak	Usurbilgo herriari, zein gizarteari, oro har, begirakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Harremanak egiteko orduan talde sustatzailea erreferentzia izatea (bai udalarekiko harremanak, bai eragileekiko, bai kanpo-eragileekiko...)</li> <li>- Koordinazioa: eragileen arteko eta kanpotik datozenak bideratu.</li> <li>- Ikuspegi estrategikoa edukitzea: balioak, helburuak, barne-araudia...</li> <li>- Komunikazioa eragile/erabiltzaileekin.</li> <li>- Egutegi orokorra kudeatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunitatea sustatu               <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ekimen indibidualak (eragile) kolektibizatu</li> <li>✓ Elkarlana sustatu</li> <li>✓ Barrura zein kanpora</li> </ul> </li> <li>- Arte diziplina ezberdinen artean sinergiak sortzea</li> <li>- Autogestioaren/Asanbleariis moaren balioak sustatu</li> <li>- Aisialdi/kultura kontsumo alternatibo eta euskaldun/euskaltzalea.</li> <li>- Honen guztiaren transmisioa belaunaldi berriei eta etorri berriei</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere jarduna eta balioak herrian zehar barreiatzea, zabaltzea</li> <li>- Elkarguneak hartzen ez dituen eremu/kolektibo/belaunaldiekin hartu-emana izatea</li> <li>- Tokiko ekonomia bultzatzea</li> </ul>


3. TALDEA		
Talde sustatzaileari dagozkionak	Elkargunea proiektuari lotutakoak	Usurbilgo herriari, zein gizarteari, oro har, begirakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondorengo helburuak (Elkarguneari dagozkion eta herriari dagozkionak) betetzen ari direla bermatzea.</li> <li>- Elkarguneari kanpoko arpegia izatea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragileen arteko kohesioa eta elkarlana bultzatzea.</li> <li>- Etengabeko jarduna bermatzea.</li> <li>- Publiko aniztasuna bermatzea.</li> <li>- Belaunaldien arteko arrakala arintzea.</li> <li>- Gune segurua bermatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal kultur gileak/kultur zaleak sortzea.</li> <li>- Gazte aktibo eta herrian parte-hartzaileak sortzea.</li> <li>- Harreman/talde berriak sortzeko erraztasunak ematea</li> <li>- Espazioa herriarena dela sentiaraztea</li> </ul>

4. TALDEA		
Talde sustatzaileari dagozkionak	Elkargunea proiektuari lotutakoak	Usurbilgo herriari, zein gizarteari, oro har, begirakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinazioa eta kudeaketa</li> <li>- Baldintza eta baliabideak ematea arnagune izateko</li> <li>- Aurrera begirako perspektiba edukitzea</li> <li>- Grina berritzailea edukitzea (adibidez: profil anitzera iristeko estrategia garatu, epe luzeko proiektua izateko)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarren zein herriko eragileen beharrak asetzea.</li> <li>- Herritarren arteko harremanak sortzea.</li> <li>- Herri mugimenduan eszenatoki izatea.</li> <li>- Herritarrak proiektua bere sentitzea</li> <li>- Begirada/epe luzeko proiektua izatea</li> <li>- Herritar oro eroso sentitzea, segurua eta inklusiboa izatea</li> <li>- Arnagunea izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren transmisioa</li> <li>- Zaintza</li> <li>- Parte-hartze aktiboa eta konpromisoa</li> <li>- Duen balioa aitortzea</li> </ul>



5. TALDEA

Talde sustatzaileari dagozkionak	Elkargunea proiektuari lotutakoak	Usurbilgo herriari, zein gizarteari, oro har, begirakoak
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinazioa</li> <li>- Gazte zein kultur ekosistemaren ahotsak jasotzen direla bermatzea</li> <li>- Espazioaren erabileraren kudeaketa</li> <li>- Espazioa bizirik mantentzea, programazio aktibo bat bermatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko gazte zein kultur ekosistemaren beharrak asetzea</li> <li>- Sareak sortu eta sendotzea, proiektu/eragile desberdinen arteko zeharkakotasuna lortzea</li> <li>- Proiektuko kide diren eragileei baliabideak eskaintzea, beraien jarduna gauzatzeko.</li> <li>- Elkargunearen jarduna ez mugatzea eraikinera soilik, herriko beste eragileekin lankidetzan aritzeko prest egotea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuan parte hartzea</li> <li>- Proiektua gauzaten uztea (herriar sektore batek aktiboki parte hartu ez arren, proiektuan trabak ez jartzea)</li> <li>- Momentuko beharretara egokitzeko prestutasuna izatea</li> <li>- Elkarguneko balioekin bat eginez jardutea (negozio-ikuspegi hutsa ekidinez), sen komunitarioa izatea</li> </ul>



4. Baliok adostu eta ezaugarritzea

Atsedendiaren ondoren, partaideei berriro talde berdinetan esertzeko eskatu diegu. Behin taldeetan egonda, mahai gainean eskura zuten materialarekin kubo bat egiteko eskatu diegu, eta horretarako hiru minutu eman dizkiegu.

Segidan, adierazi diegu eraikitakoa kuboak Elkargunea dela eta bi minutu dituztela bertan balioak irudikatzeko. Denbora amaitzean, eurek egindakoa gainerako taldeei aurkeztu eta Elkargunearen balioak besteenak baino hobeak direla argudiatzeko eskatu diegu.

1. TALDEA: “Gure Elkargunean balioak dira: euskalduna izatea, parekidea, komunitarioa, zaindua eta inklusiboa. Elkargunean figura desberdinak eta kolore desberdinarekin daude, pertsona bakoitza kolore desberdina izanik; esan nahi du Elkargune inklusibo bat”.
2. TALDEA: “Guk sormena ere sartu dugu; sortzailea da. Eta maitasuna jarri dugu”
3. TALDEA: “Guk Elkargunea sortzeko elkarlan-ekimen bat egin dugu, zirrikitu eta arrakalaz bete dugu, inklusiboa izatea nahi dugulako, eta norbait bota nahi badugu, ba kanpora botatzeko. Balioak ere ez ditugu guztiz sartu edo guztiz atera; barruan zein kanpoan egotea nahi dugulako: elkar zaintza, pentsamendu kritikoa, errespetua, errebeldia, euskaltzaletasuna... Batzuk fondo-fondoan daude, ezin direlako atera. Gonbidatzen zaituztegu bertara sartzera”
4. TALDEA: “Guk behean daukagu oinarria, gure balioak, kolore desberdinak, eta hortik loratuko da udaberria. Bertan jarri ditugu: Usurbil, herrigintza, euskara, elkarlana... Gainera, eman diogu forma bat, ez delako kubo perfektua, eta gure perfekzio inperfekzio horretan bizi nahi dugulako”.
5. TALDEA: “Gure kubo oso ondo egina dago, ez dugu arrakaletan eta horien betiketean sinesten. Bai, ordea, barruan eta kanpoan dagoena, hartu-eman konstante batean dago: ondo egituratutako kubo da, barruan daude parte-hartzaileak, eragileak... baina gero badauzka aldarrak batzuk kanpora begira ere, balioetan itzultzen direnak: badago filosofia orokor bat:  $1+1=3$ ; aparte baino elkarrekin eraginkortasun handiagoa daukagu, zaintza erdigunean dago, barruan baina kanpora begira ere bai, izan *ekolagun* filosofia ere aplikatzen dugu... Eta bloke hutsak irekitasuna sinbolizatzen du. Eta bukatzeko, harremanak daude zentroan baita ere, eta hondartza”.



Konpartitutakoa oinarri, Elkargunean balioak lantzerako pasara. Azpimarratu da balioak pertsona, talde edo proiektu baten printzipioak direla, eta garrantzitsuak direla balio-sistema hori talde edo proiektu horren jardunarekin koherenteak izatea.



Paretan itsatsirik dauden balioak aurkeztu ditugu (euskaltzaletasuna, feminismoa, ekologia, inklusioa, segurua, burujabetza, sormena, parte hartzea, elkarlana, komunitatea) eta adierazi Talde Eragiletik egiten den ekarpena dela, eta balitekeela balioak gehitu, bateratu, edo kentzea. Segidan, partaide bakoitzari, errotuladoreak eskuan, balio bakoitzak zer iradokitzen dion eta Elkargunea proiektuan nola islatzea nahiko lukeen idazteko eskatu diogu.



Banakako erronda egin ondoren, taldeka, balioak ezaugarritzera pasa gara. Hau da, balio bakoitzean bildutako ekarpenak kontuan hartuta eta/edo ideia berriak gehituz, balioa esaldi batean ezaugarritzen saiatu gara. Esaldi horrek, nolabait, balio bakoitza Elkargunean praktikan nola emango den jasotzeko eskatu diegu.

Taldeak egiteko, bakoitzari interes handieneko blokean kokatzeko eskatu diogu. Talde bakoitzean bi balioaren gainean jardun dute.



Hona balio bakoitzean jasotakoak, ezkerreko zutabean, banaka egindako ekarpenak, eta eskuinekoan, berriz, taldeka egindako lanketa.



**BURUJABEA**

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Asanblada indartsua, erabakigune.</li> <li>- Udalarekin dependentziarik ez.</li> <li>- Autogestioa bultzatzea</li> <li>- Independentzia ekonomikoa</li> <li>- Udalaren papera hasieratik oso garbi.</li> <li>Elkargunearen ekimen</li> <li>- Independentzia vs udalaren jabetza</li> </ul>	<p>Elkarguneko jarduna bertako partaideengandik sortua eta kudeatua izango da, baita espazio antolaketa eta baliabide ekonomikoak ere (ahalik eta gehien). Eta herritarren beharrei elkarrekintzan erantzutea ahalbidetuko du, burujabetzatik, hain zuzen.</p>

**EKOLOGIA**

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Natur zaintza eta ezagutza</li> <li>- Kontsumoarekiko ardura</li> <li>- Inguruarekiko errespetua</li> <li>- Kanpo-espazioen erabilera (errespetuzkoa)</li> <li>- Tokiko ekonomia sustatu (ekonomia zirkularraren aktibo bilakatu)</li> <li>- Hornidura euskaldun, etiko, kooperatiboa (argindarra: goiener, sortalde; zuntza: izarkom; dirua: fiare)</li> <li>- Eragile funtzioa: herria/herritarrak eraldatzeko jardun aktiboa</li> <li>- Lehen sektorearekiko ezagutza</li> <li>- Teilatuan eguzki plakak</li> <li>- Materialen jasangarritasuna eta zaborren kudeaketa</li> </ul>	<p>Elkarguneak Usurbil eta inguru naturalaren ezagutza eta erabilera osasuntsu baten kontzientzia zioa bultzatuko du, baita kontsumo eredu jasangarrien inguruan eragin ere. Horrez gain, inguruan izango duen gune berdearen kudeaketaren ardura izango du.</p>

**FEMINISTA**

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekintza oro genero-ikuspegitik (nork, nozentzat, zein espazio sortzen diren)</li> <li>- Genero-rolak, jarrera matxistak... ez onartu. Jarrera-matxistak, ezkutukoak azaleratuz.</li> <li>- Botere harremanak eta pribilegioak auzitan jarri. Lanketa espezifikoa (maskulinitatea – heldu boterea)</li> <li>- Balio feministak guztion ardura izatea eta soilik emakume eta genero disidenteeek geure gain hartzea.</li> <li>- Gizontasuna auzitan jarri</li> <li>- Emakumeak indartu eta proiektu berrietara bultzatu</li> <li>- Ekitaldiak antolatzean/programatzean genero-ikuspegia</li> </ul>	<p>Proiektuan balio feministak* errotzea, horretarako baliabide zehatz eta praktikoak sortuz. Edozein ekintza egiterako orduan bertan balio feministak bermatu direla ziurtatuko duen check-list bat sortu; formakuntzak...</p> <p>*ikuspegi interseksionala, zapalkuntza oro (genero-rolak, maskulinitate toxikoa, botere harremanak...) identifikatu eta alternatibak sortu. Antolaketa- eta harreman-eredu osasuntsuak.</p>

**EUSKALZALETASUNA**

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskaraz lan egin</li> <li>- Euskal eskaintza</li> <li>- Elkarguneko ekintzak euskaraz egitea</li> <li>- Kultur zaletasuna bultzatu</li> <li>- Gazteentzat erreferentziak eskaini</li> <li>- Lehen hitza beti euskaraz</li> </ul>	<p>Euskaraz bizitzeaz harago, euskal zaletasuna sustatuko duen proiektua izango da, tokiko euskal kultur erreferentziak hauspotuz.</p>



<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza eragileekin elkarlana: euskal erreferentziak sortu, ahal dela, tokikoak</li> <li>- Euskara EHn duen errealitatearen ezagutza</li> <li>- Gehien behar dutenei laguntza</li> <li>- Euskal Kultura &lt;--&gt; Emozioak</li> <li>- Kulturartekotasuna: adibidez, kultura desberdinetakoei euskal kultura erakutsi</li> </ul>	
---	--

## ELKARLANA

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasketa</li> <li>- Koordinazioa</li> <li>- Kolektiboan pentsatzea</li> <li>- Eragile askoren arteko elkarlana</li> <li>- Auzolana</li> <li>- Elkar laguntzea</li> <li>- Komunikazio etengabea</li> <li>- Talde guztiak kontuan hartzea</li> <li>- Elkarlan formula garbiak/zehatzak: ekintza, talde sustatzailearen ardatz bat</li> <li>- Beste herrietako komunitateekin elkarlana</li> <li>- Herriko beste proiektu komunitarioekin</li> </ul>	<p>Kolektiboan jardutea etengabe, koordinazio eta komunikazioaren bidez.</p>

## PARTE HARTZEA

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartze aktiboa ekintzak antolatuz, zein parte hartze pasiboa ekintzetara gerturatuz</li> <li>- Herrigintzaren eszenatokia</li> <li>- Erabakiak modu hierarkikoan hartzea ekidin</li> <li>- Banaka zein taldeko parte-hartzea</li> <li>- Parte hartze modu desberdinak esperimendatuko duena</li> <li>- Herrigintzaren garrantzia islatu</li> <li>- Denen iritzia balio berbera izatea</li> <li>- Soilik egoteko/aspertzeko espazioa ere izan daiteke</li> <li>- Parte-hartze formula/bide argiak eta errazak (burokrazia/nahasmena ekidin)</li> </ul>	<p>Herrigintza aktibo zein pasiboa. Iritzia guztiak errespetatu eta kontutan izan</p>

## INKLUSIOA

Banaka	Taldeka
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errealitate guztiak ezagutu/entzuteko lehen pausoa</li> <li>- Norbanakoen ezaugarri desberdinak zaintzea</li> <li>- Haurren hiria filosofia erdigunea: zaurgarrienak erdigunean, guztiontzat izan dadin</li> <li>- Talde/pertsona aniztasuna bermatzea</li> </ul>	<p>Elkargunea ezaugarri sozial desberdinen topaleku irisgarria izango da (adina, jatorria, kultura...). Horretarako, errealitate guztiak entzun eta ezagutuko ditu Elkarguneak, herritarren kontzientziak astintzeko asmoz.</p>



<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal kulturaren zabaltzea eta ezagutza</li> <li>- Kanpoko kulturekin elkarlana</li> <li>- Irisgarria</li> <li>- Intergenerazionala</li> <li>- Barneko harresiak eraitsi (kontzientzia)</li> <li>- Etorkinen integrazioa</li> <li>- Zeharkakotasuna: proiektua benetan inklusiboa izateko</li> </ul>	
<b>SEGURUA</b>	
<b>Banaka</b>	<b>Taldeka</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gune askea</li> <li>- Kontzientziazioa -&gt; protokolo partekatuak -&gt; jarraipen partekatuak</li> <li>- Epairik gabeko espazioa</li> <li>- Elkar zaintza</li> <li>- Aurreiritzirik ez edukitzea</li> <li>- Elkarrekiko errespetua</li> <li>- Babestua sentitzea</li> <li>- Espazio segurua izatea guztion ardura</li> </ul>	<p>Elkargunean ez da epairik, ez aurreiritzirik onartuko. Kideok zein herritarrak babestuak senti gaitezen, elkar errespetatuko gara eta elkar zaindiko dugu. Horretarako protokolo partekatuak diseinatuko dira komunitatean, espazio segurua izatea guztion ardura baita.</p>

<b>KOMUNITATEA</b>	
<b>Banaka</b>	<b>Taldeka</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkar laguntza</li> <li>- Denok balio berbera</li> <li>- Herri ikuskera duten egitasmoak gauzatzea</li> <li>- Elkar ezagutu</li> <li>- Hartu emana egotea, baina aldi berean jardunaren trukean zerbait jasotzeko ez egitea.</li> <li>- Pertenentzia sentimendua (bai Elkargunekoa, bai herrikoa)</li> <li>- Informazio kanal demokratikoak: metaketarik ez → izaera komunitarioa ez galtzeko.</li> <li>- Usurbilgo herriarentzat erreferentziako gune/topaleku → Komunitate sortzaile → Eragile/norbanako – belaunaldi/jatorri</li> <li>- Gainerako herriko eragileekin lankidetzatza</li> </ul>	<p>Komunitate begirada eta sentimendua aintzat hartuta, lankidetzarako sareak eratzea nahiz bermatzea ardatz izango da.</p>
<b>SORMENA</b>	
<b>Banaka</b>	<b>Taldeka</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ko-sormena</li> <li>- Sormen gunea / Espazio fisikoa +</li> <li>- Sormen ariketak</li> <li>- Sormen esperientziak partekatu (erreferentziak sortu)</li> <li>- Norberaren sormen burbuilatik irten</li> <li>- Sormen kolektiboa</li> <li>- Baliabideak eskaini (fisikoak, ekonomikoak, pertsonalak)</li> <li>- Proiektua bera sortzailea izatea</li> <li>- "laborategia" egiteko modu desberdinak probatu + akatsak egin + onartu + moldatu/egokitu</li> <li>- Multidisziplinaritatea bultzatu</li> </ul>	<p>Sormen individual zein kolektiboak bultzatzeko gune bizia</p>

- |  |  |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Sortzaile berrien harrobi</li><li>- Sormena lantzeko azpiegiturak konpartitu</li></ul> |  |
|--|--|

Adierazi dugu gaurko helburua balioetara gerturatzea eta horien inguruan hausnartzea zela, eta egindako ezaugarritzeak behin-behinekoak direla; prozesuan zehar, zein proiektua egikaritu ahala, funtsezkoa izango dela balioen berrirakurketa egitea.

Hainbat balio ezaugarritzean, gainera, eztabaidak sortu eta hausnarketak ere partekatu dira. Hala nola, gai hauen inguruan:

- Sormenari dagokionez, zer da sormena? bezalako galderak planteatu dira, eta ikuspegi zabalean ulertzearen garrantzia azpimarratu da, Elkarguneak eduki behar lukeen espiritu sortzailea balioan jarriz.
- Burujabetzari dagokionez ere, horren baitan zer ulertzen den partekatzea eta eztabaidatzea ere funtsezkoa da, eta gai desberdinak izan dira hizpide: kanpo-laguntza; zer den dependentzia edukitzea; autogestioaren balioa, udalaren rola Elkargunea proiektuan...
- Inklusioaz hitz egitean ere, euskarak kohesioari eta inklusioari begira ere tresna garrantzitsua izan behar duela azpimarratu da.
- Etengabeko komunikazioak batzuetan zer esan nahi duen ere gogoeta egin da. Aipatu da, alertan eta etengabe konektatuta bizi garen honetan, Elkargunea aukera izan daitekeela deskonexio horretan eraiteko eta beste erritmo batean aritzeko.

## 5. Hurrengo urratsak partekatzea

Saioa ixteko, eta balorazioa egin aurretik, hurrengo hitzordua apirilaren 20an izango dela gogorarazi dugu. Eta hasiera bateko asmoa apirilekoa saioa kudeaketaz hitz egiteko baliatzea baldin bazen ere, adierazi dugu beharbada espazioaz eta espazioaren erabileraz hitz egiteko baliatuko dugula.

## 6. Balorazioa

Azkenik, balorazioa egin dugu, eta bakoitzari hitz batekin saioa baloratzeko eskatu diogu. Hona jasotakoak:

*Talde-lana; oinarria; pentsaraztea; erraza; norabidea; baliotsua; ideiak; nortasuna; ikuspuntu desberdinak; epairik ez, mesedez; esanguratsua; beharrezkoa; aberasgarria; ilusioa; eramangarria; ondo; motibazioa; baldintzak; koordenadak; ederra.*

Azkenik, eskerrak eman eta hurrengo hitzordu arte agurtu gara.